

DONOSTIA

Aiete
Altza
Amara Berri
Amara Zaharra
Añorga
Antigua
Bidebieta
Egia
Erdialdea
Gros
Ibaeta
Igeldo
Intxaurreondo
Loiola
Martutene
Parte Zaharra
Zubietza



- Tolosaldeko Hitza
- Oarsoaldeko Hitza
- Urola Kostako Hitza
- Busturialdeko Hitza
- Goierriko Hitza
- Lea-Artibaialdeko weba

[Eman izena](#)
[Hitza](#)
[jasotzeko](#)

DONOSTIA

ERAKUSKETA » 'NI EMAKUME'

Zazpi emakume artisten ikuspuntuak

Ikuspuntu eta teknika desberdinak erabiliz, 'Ni emakume' erakusketa osatu dute zazpi emakume artistek Okendon

NAGORE IRASTORZA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan martxoak 8 emakumeak protagonista dituen erakusketak antolatzeke ohitura dute Okendo kultur etxeko arduradunek. Atzo Ni emakume izeneko erakusketa aurkeztu zuten, zazpi emakume artisten lanak biltzen dituen. Datorren apirilaren 14a arte egongo da zabalik, Okendo kultur etxean bertan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era.

Erakusketa honetan zazpi emakume artistek parte hartzen dute eta ikuspuntu eta teknika desberdinak erabili dituzte beren lanak egiteko. Elkarren artean duten lotura emakumezkoak izatea da. Erakusketan parte hartu duten artistak Ainize Txopitea, Ione Saizar, Maria Jose Lacadena, Mercedes Bautista, Mj Tobal, Sonia Rueda eta Tina Escaja dira.

Emakumeen paperaz

Lanak gai baten inguruan egin dituzte artistek: gaur egungo artearen testuinguru artistikoan eta sozialean emakumeek jokatzen duten papera. Poesia interaktiboa, argazkiak, collageak, pintura digitalak, eskulturak eta bideo lanak ikus daitezke erakusketan.

Ainize Txopiteak hiru lan poetiko aurkeztu ditu, Homenaje a las amas de casa collagearekin batera. Ione Saizarrek bederatzi argazkiz osatutako Gritando en silencio eta Artifices lanak erakutsiko ditu. Emakumeak hiriarekin eta naturarekin duen harremana islatzen dute.

Tina Escajak emakumearen aldeko konpromisoaz gain, konpromiso politikoa adierazten du Código de barras obran. Mercedes Bautistak Mexikoko mendietako hostoz edo limoi azalez egindako eskulturak aurkeztu ditu.

Maria Jose Lacadenak eta Mj Tobalek ez zuten haien lana azaldu, «norberak interpretatzea» bilatzen dutelako.



handitu

AGENDA

> ERAKUSKETA
INTXAURRONGO.
Pegatina erakusketa(2007-02-22)

> ERAKUSKETA
AMARA BERRI. 'Mas alla del Olimpo'(2007-02-09)

ekitaldi guztiak ikusi

INKESTA

EZTABAIDA

> DONOSTIALDEA

14.000 korrikalarik parte hartu ahal izango dute aurtengo Behobia Donostia lasterketan. Posible iruditzen al zaizu hainbeste korrikalari hartzea ala gehiegizkoa iruditzen zaizu?

ZERBITZUAK

- ☐ Telefonoak
- ☐ Tren eta autobusen ordulegiak
- ☐ Farmaziak
- ☐ Internet helbideak

IRUDIETAN



0. U2 eromena

>> BIDALI ZURE IRITZIA

Izena:

E-posta:

Izenburua:

Testua:

====Mezua Bidali====

Aurreko edizioak: Aurreko edizioak